



kontsumoBIDE

KONTSUMOKO
EUSKAL INSTITUTUA
INSTITUTO VASCO
DE CONSUMO

Eusko Jaurlaritzako Erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del Gobierno Vasco



PERTSONA
HELBURU



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



2014 memoria





kontsumoBIDE

KONTSUMOKO
EUSKAL INSTITUTUA
INSTITUTO VASCO
DE CONSUMO

Aurkibidea

1. Sarrera 3

2. Informazioa 5

2.1. Argitalpenak 6

2.1.1. Liburuxkak 7

2.1.2. Aldizkariak 8

2.1.3. Azterlanak 9

2.1.4. Kontsumobideren 2013ko memoria 9

2.2. Sentsibilizazioa 9

2.2.1. Kontsumoko Arbitraje Sistema
hedatzeko kanpaina 10

2.2.2. Kontsumobide hedatzeko
kanpaina 10

2.2.3. Kontsumobideren agerpenak
komunikabideetan 11

2.3. Kontsumobide Sarean 11

2.3.1. Webgunea 11

2.3.2. Bloga eta sare sozialak 12

2.3.3. Kontsumobide APP 12

3. Prestakuntza 13

3.1. Kontsumorako prestakuntza
Kontsumobideko zentroetan 13

3.2. Kontsumorako prestakuntza
ikastetxeetan 14

3.3. Kontsumorako prestakuntza
adinekoentzat 16

3.4. Ikastaroak eta jardunaldiak 17

3.4.1. Profesionalentzako etengabeko
prestakuntza 17

4. Gatazkak konpontzea 18

4.1. Kontsumoko kotsultak Euskadin 18

4.2. Kontsumoko erreklamazioak
Euskadin 20

4.2.1. Kontsumobide 23

4.2.2. Kontsumitzaileen
Informaziorako Udal-Bulegoak
(KIUB) 27

4.2.3. Kontsumitzaileen elkarteak 29

4.3. Zehapen-espeditentak 31

4.4. Kontsumoko Arbitrajea 33

4.4.1. Enpresen atxikipena
arbitrajeari 33

4.4.2. Arbitraje-eskaerak 37

5. Merkatuaren kontrola 39

5.1. Ikuskatzeko eta kontrolatzeko
kanpainak 39

5.2. SOIVREekin koordinatutako
ikuskapen-jarduerak 40

5.3. Elikagaiak ez diren produktuen
segurtasunaren kontrola 40

5.4. Ikuskatze-jarduerak 41

6. Beste erakunde eta agente batzuekin lankidetzat 43

6.1. Babes ekonomikoa emateko programa 43

6.1.1. Toki-erakundeak (KIUB) 43

6.1.2. Kontsumitzaileen elkarteak 46

6.2. Kontsumoko Aholku Batzordea 47

6.3. AECOSAN eta gainerako
autonomia-erkidegoak 48

Eranskinak (harremanetarako datuak) 49

I. Eranskina: Kontsumobide 49

II. Eranskina: Kontsumitzaileen informaziorako
eta arretarako zentroak (KIAZ sarea) 50



1. Sarrera

Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuaren egitura eta antolaketa 159/2011 Dekretuaren bidez onartu zen 2011ko uztailaren 12an, eta beraz, 3 urte eta erdi pasa dira harrezkero. Nolanahi ere, epe horretan, institutuak beti izan du kontuan zer helbururekin sortu zen.

Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailari atxikitako erakunde autonomoa da, eta haren **helburua kontsumitzaileak eta erabiltzaileak defendatzearen eta babestearen arloan Eusko Jaurlaritzaren politikak zehaztea, planifikatzea, bultzatzea eta betearaztea da.**

Loturak 'Ezagutu Kontsumobide':

- ▶ [Helburuak eta funtzioak](#)
- ▶ [Kontsumobideren 2014-2018 Plan Estrategikoa](#)
- ▶ [Kontsumobiden euskararen erabilera normalizatzeko berariazko plana \(2013-2017\)](#)
- ▶ [Kontsumobideren egitura](#)
- ▶ [Harremanetarako datuak](#)
- ▶ [Memoriak](#)

Hau du xede memoria honek: Kontsumoko Euskal Institutuak 2014. urtearen joanean kontsumitzaileak eta erabiltzaileak defendatzearen eta babestearen arloan egindako jardun eta jardura garrantzitsuenak eta nabarmenenak euskal herritarrei eta gure erakundekoak ez diren beste profesional batzuei jakinaraztea. Beste modu batera esanda, dokumentu honen helburua ez da Kontsumobidek aipaturako epe horretan gauzatutako jardura guztiak zehatz-mehatz bilduko dituen laburpena izatea, baizik eta aipagarritzat hartutako jardueren berri ematea.

Dokumentu honetako informazioa **5 ataletan** banatu dugu:

- ▶ Informazioa
- ▶ Prestakuntza
- ▶ Gatazken konponbidea
- ▶ Merkatuaren kontrola
- ▶ Beste erakunde eta agente batzuekin lankidetzatza

'**Informazioa**' eta '**Prestakuntza**' ataletan Plangintza, Azterketa, Informazio eta Prestakuntzarako Unitatearen bidez gauzatutako jardura adieraziko dugu batez ere.

Informazioari eta prestakuntzari dagokionez, herritarrak beren eskubide eta betebeharrei buruz kontzientziatu eta hezteko ezinbesteko zereginak dira, modu kritiko, kontziente eta arduratsuan jardun dezaten produktu eta zerbitzuak kontsumitzeko garaian. Ikastaroak,

konferentziak, hezkuntza-jarduerak, komunikabideak, gizarte-sareak, web-orriak, bertako zein kanpoko argitalpenak... Gaur egungo kontsumitzaileak zein etorkizunekoak informatzeko eta hezteko eskura dituen bitarteko guztiak erabili ditu Kontsumobidek.

'Gatazken konponbidea' atalean, erreklamazioetarako, Bitartekaritzarako eta Arbitrajerako Unitatearen bidez gauzatutako jarduerak biltzen dira. Kontsumoarekin zerikusia duten arazoei irtenbidea emateko kontsumitzaileek erabilitako baliabide guztiak hartzen ditu bere baitan: kontsultak, erreklamazioak, zehapen-espedienteak, arbitraje-eskaerak...

'Merkatuaren kontrola' atala, berriz, Merkatuaren Ikuskaritza eta Kontrolerako Unitatearen bidez, batik bat, kontsumitzaileen eskura dauden produktuek eta zerbitzuek indarreko legerian eskatutako baldintza guztiak (etiketei, informazioari eta segurtasunari dagokienez) betetzen dituztela egiaztatzeko gauzatutako jarduera guztiei buruzkoa da.

'Beste erakunde eta agente batzuekin lankidetzak' atalean, Kontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulegoei (KIUB) eta kontsumitzaileen elkarteei (KE) emandako laguntza ekonomikoari buruzko informazioa adierazi dugu, bai eta beste erakunde batzuekiko (Kontsumoko Kontsulta Batzordea, AECOSAN, beste autonomia-erkidego batzuk...) harremanei buruzko informazioa ere.

Eta azkenik, bi **eranskinetan** biltzen dira **Kontsumobidiren harremanetarako datuak** (I. eranskina), bai eta Euskadiko kontsumitzailearen informaziorako eta arretarako zentroen zerrenda ere (KIAZ sarea -Kontsumobidek koordinatutakoa-): **KIUB** eta **Kontsumitzaileen elkarteak** (II. eranskina).

1.1. Kontsumobidieren 2014-2018 Plan Estrategikoa

Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuaren Zuzendaritza Kontseiluak 'Kontsumobidieren 2014-2018 Plan Estrategikoa' onartu du (2014ko uztailak 3), hau da, **datozen 4 urteetarako helburuak eta jarduteko ildoak ezartzen dituen**.

Plan Estrategikoa Kontsumobiden izandako elkarlanaren ondorio da (gogoetakoa, koordinaziokoa eta lankidetzakoa).

Izan ere, Kontsumobidek beharrezkotzat jo ditu hurrengo urteotan aurre egin beharreko erronka nagusiak identifikatzea eta kontsumitzaileekin, gainerako interes-taldeekin eta, orokorrean, gizartearekin partekatzea; 2018ra begira, oinarri estrategikoak eta jarduteko urrats, helburu eta ekintza berriak (jarduerak) ezarriz.

1.2. Kontsumobiden euskararen erabilera normalizatzeko berariazko plana (2013-2017)

Kontsumobideren Zuzendaritza-kontseiluak, 2014ko abenduaren 3an, onartu du **‘Kontsumobiden euskararen erabilera normalizatzeko berariazko plana (2013-2017)’**.

Plana testuinguru honetan sortu da: **‘Kontsumobideren 2014-2018 aldirako Plan Estrategikoa’** (Zuzendaritza Kontseiluak 2014ko uztailaren 3an onartutakoa) eta **‘Eusko Jaurlaritzak V. plangintzaldirako (2013-2017) prestatutako Euskararen Erabilerarako Plan Nagusia’**.

Plan honen helburu nagusia da herritarrak beraiek aukeratutako hizkuntza ofizialean (euskaraz edo gaztelaniaz) artatzea, herritarren hizkuntza-eskubideak betetzea eta, beraz, euskara zerbitzu-hizkuntza eta lan-hizkuntza gisa erabiltzea.

2. Informazioa

2014. urtearen joanean, Kontsumobidek informazioaren alorrean egin zituen jarduerak ekimen hauen bidez gauzatu ziren:

- ▶ Argitalpenak
- ▶ Sentsibilizazioa
- ▶ Kontsumobide sarean

2.1. Argitalpenak

Kontsumobideren lehentasuneko helburu bat da kontsumitzaileei eta erabiltzaileei zabaltzen zaien informazioa bultzatzea, eta, horretarako, **monografiak, liburuxkak, gidaliburuak eta kontsumo-gaiei buruzko askotariko materialak** erabiltzen dira.

Loturak:

- ▶ [Liburuxkak](#)
- ▶ [Aldizkariak](#)
- ▶ [Azterlanak](#)
- ▶ [Memoriak](#)




2.1.1. Liburuxkak

2014. urtean liburuxka hauek argitaratu eta zabaldu dira:



[Erreklamazio-orria.](#)



[Erreklamazio-orriak: enpresentzako informazioa](#)



[Banku komisioak. Kontuak garbi!](#)



[Merkataritza elektronikoa, webgune seguruetan bakarrik erosi.](#)



[Merkataritza elektronikoa, ordainketa seguruak eta erositakoa itzultzea.](#)

2.1.2. Aldizkariak

Kontsumobidek kontsumoarekin zerikusia duten gaietarako aldizkari hauek egin eta argitaratzen jarraitu du:

▶ **Kontsumobide Aldizkaria:** 21. zenbakira arte (2014), kontsumoari buruzko gaiak jorratu dira monografikoki, ikuspegi hirukoitz bat oinarri hartuta: azalpen teorikoa, kasu praktiko eta adierazgarri baten planteamendua, eta kontsumitzailearen eskubideak eta betebeharrak. 22. zenbakitik aurrera (2014), diseinua eraberritu da eta edukiak aberastu. 2014. urtearen joanean hiru 3 ale argitaratu dira:

- ▶ **20. zenbakia:** *Bidaiak kontratatzea online*
- ▶ **21. zenbakia:** *Kontsumo araudi berria*
- ▶ **22. zenbakia:** *kontsumoBIDE Aldizkaria: Energia aurreztu!*

▶ Lotura: [Kontsumobide Aldizkaria](#)

▶ **“Kontsumorako prestakuntza ikastetxeetan” aldizkaria:** 2014an **9. zenbakia** argitaratu da, eta bertan 2013-2014 ikasturtean prestakuntza-ekintzetan parte hartu duten ikastetxeek bidalitako artikulak, argazkiak eta ekarpenak jasotzen dira. Programan parte hartu duten ikastetxeetan banatu da aldizkaria.

▶ Lotura: [‘Kontsumorako prestakuntza ikastetxeetan’ aldizkaria](#)

▶ **“Kontsumorako prestakuntza adinekoen zentroetan”:** 2014an **8. zenbakia** argitaratu da; bertan, prestakuntza-programan parte hartu duten EAEko adineko pertsonen zentroetan gauzatutako prestakuntza-programaren datuak jasotzen dira. Era berean, kontsumoarekin lotutako gaur egungo gaietan oinarritutako artikulak agertzen dira.

▶ Lotura: [‘Kontsumorako prestakuntza adinekoen zentroetan’ aldizkaria](#)



2.1.3. Azterlanak

2014. urtean, kontsumoari buruzko 3 prestakuntza-zentroen bidez, haietako erabiltzaileen artean 3 inkesta egin dira:

- ▶ **Azterlana ‘Adinekoak kontsumoaren eremuan: Euskadin erreklamazio gehien izan dituzten sektoreen inguruko zailtasunak eta arazoak’** (2014ko iraila).
- ▶ **Azterlana ‘Merkataritza elektronikoa buruzko jakintza maila’** (2014ko uztaila).
- ▶ **Azterlana “Kontsumobideko zerbitzuak. Ezagutza eta ebaluazioa”** (2014ko maiatza).

Inkesta horietako emaitzak txosten banatan bildu ditugu.

- ▶ Lotura: [Azterlanak](#)

2.1.4. Kontsumobideren 2013ko memoria

2014. urtean argitaratu da [Kontsumobideren 2013ko memoria](#).



2.2. Sentsibilizazioa

2.2.1. Kontsumoko Arbitraje Sistema hedatzeko kanpaina

Kontsumoko Arbitraje Sistema kontsumitzaileen artean jakitera emateko, Kontsumobide – Kontsumoko Euskal Institutuak lelo hau zuen **hedapen-kanpaina** egin zuen: **“Kontsumoko arbitrajea. Egin zaitez arbitraje-sistemako kide!”**. 2014ko urrian eta azaroan gauzatutako kanpaina horretan, hainbat ekintza-mota gauzatu ziren: aurrez aurreko bisitak enpresetara, Internet bidez zabaldu (webgunea, bloga eta gizarte-sareak), liburuxkak banatu...

Enpresetara aurrez aurre egindako bisitei dagokienez, hau izan zen helburu nagusia: Kontsumoko Arbitraje Sistemako kide berriak lortzea. Horren haritik, aparteko garrantzia eman zitzairen eraikuntzaren eta telefoniaren sektoreekin zerikusia duten enpresei.

Bisita horiek, batik bat, Bilbon, Donostian eta Gasteizen egin dira, baina biztanle-kopuru handia duten EAeko beste udalerrri batzuetan ere izan ginen; hain zuzen ere, Bizkaiko 32 udalerritan, Gipuzkoako 21 udalerritan eta Arabako 3 udalerritan.

2.2.2. Kontsumobide hedatzeko kanpaina

2014an, Kontsumobidek **dibulgazio kanpaina** abiarazi zuen hainbat hedabidetan, kontsumitzaileei beren eskubideen eta betebeharren berri emateko eta kontsumitzean izan ditzaketen arriskuen gaineko aholkuak emateko:

- ▶ **Telebistan:** kontsumoari buruzko mezuak eman zituzten “Zu hor eta gu hemen” (ETB1) eta “Sin ir más lejos” (ETB2) programetan.
- ▶ **Irratian:** kontsumoarekin zerikusia duten gomendioak igorri ziren Cadena SER, EITB eta Onda Vasca dialetan.
- ▶ **Interneten:** RTB (Real Time Bidding) inpresioak egin ziren Elcorreo.com, Diarivasco.com, Deia.com, Noticiasdealava.com, Noticiasdegipuzkoa.com, Naiz.info eta Berria.info webguneetan.

2.2.3. Kontsumobideren agerpenak komunikabideetan

Guztira, 2014an, Kontsumobidek komunikabideetarako 15 ohar egin ditu.

2014. urtearen joanean Kontsumobide 282 aldiz agertu da **prentsa idatzian**, 519 aldiz **prentsa digitalean**, 9 aldiz **telebistan** eta 239 **irratian**. Horrez gain, hedatzeko kanpainaren ondorioz, 5.195.691 **inpresioak** izan ditu **Interneten**.



2.3. Kontsumobide Sarean

2.3.1. www.kontsumobide.eus webgunea

2014an, Kontsumobideko web orriak domeinuz aldatu du, Eusko Jaurlaritzako beste sailek eta erakundeek bezala (.NET-etik .EUS-era).

- ▶ Hona hemen web orriaren egungo URLa: <http://www.kontsumobide.eus>

Izan ere, webgunea bisitatu dutenen kopurua nabarmenki gora egin du aurreko urteko kopuruarekiko (**2014an 90.792 bisita** egin ziren, eta 2013an, berriz, 77.601).

Web-orriaren bidez, Kontsumobidek kontsumoaren alorreko kalitatezko informazio eguneratua eta erraz topa daitekeena eskaini nahi du, Institutuaren lan-esparruei dagokienez.

Webgunearen funtsezko helburua kontsumitzaileei beren eskubideak erabiltzen eta beren betebeharrak betetzen laguntzea da, eta, horretarako, modu arduratsuan kontsumitzeko informazio praktikoa eskaintzea. Hala ere, kontsumitzaileentzako informazioa eta dokumentazioa eskaintzeaz gain, informazio zehatza ere eskaintzen die beste talde batzuei: kontsumoaren alorrean lan egiten duten enpresei, hezitzaileei eta profesionaleri, hain zuzen.

Webguneari dagokionez, 2014. urtean, urtean uneko gaiekin zerikusia duten interesguneei erantzuteaz gain, nabigatzea errazago egiteko zereginari aparteko garrantzia eman diogu, intuitiboagoa egite aldera.

Kontsumobideren webgunea

2.3.2. Bloga eta sare sozialak

2014. urtean, euskal biztanleriak sare sozialak gero eta gehiago erabiltzeko joeraz kontziente izanik, bloga sustatzeko eta gizarte-sareetan egoteko lan egiten jarraitu du Kontsumobidek: Facebook, Twitter eta Youtube.

Zentzu honetan **8.724 sarrera blogean** lortu dira, **1.805 “Atsegin dut” Facebooken** eta **1.237 jarraitzaile Twitteren**.

Kontsumobideren profiak Facebook eta Twitter sare sozialetan



2.3.3. Kontsumobide APP

Nabarmentzekoa da 2014ko azken hiletan, Kontsumobidek hainbat baliabide erabili dituela gailu **mugikorretarako aplikazio** bat sortzen. Android eta IOS sistema eragileekin erabil daiteke.

Aplikazioa erabat erabilgarri egongo da 2015eko hasieran. Kontsumobidek herritarren ohituretara egokitu nahi izan du ekimen honekin. Izan ere, gero eta gehiago dira halako gailuak erabiltzen dituzten herritarrak, eta Kontsumobidek haien interesekoak izan daitezkeen oinarriko informazioa helarazi nahi die: telefonia, elektrizitate-hornikuntza, bankuak, aire-garraioa, erosketak, etiketak, erreklamazioak jartzea...

3. Prestakuntza

Kontsumobide - Kontsumoko Euskal Institutuak herritarrei zein kontsumoaren arloan lan egiten duten profesionaleri zuzendutako doako prestakuntza- eta hezkuntza-programak antolatzen ditu.

Loturak:

- ▶ [Kontsumorako prestakuntza, lehenetasuna Kontsumobiderentzat](#)
- ▶ [Prestakuntza-eskaintza](#)
- ▶ [Norentzat da prestakuntza-eskaintza?](#)

Herritarrak kontsumoaren alorrean prestatu eta hezteko, Kontsumobidek hiru programa ditu, batez ere: **Kontsumobideren prestakuntza-zentroak**, **Kontsumoko prestakuntza ikastetxeetan eta Kontsumoko prestakuntza adinekoentzat**. 2014. urtean, **guztira, 82.561 partaidetza izan dira** 3 programa horietan.

Kontsumoaren alorreko profesionaleri zuzendutako prestakuntzari dagokionez, urtean zehar prestakuntza-programa jarraitu bat egin da. 2014an, **218 lagunek hartu dute parte**.

3.1. Kontsumorako prestakuntza Kontsumobideko zentroetan

Kontsumobidek kontsumoari buruzko prestakuntza-zentro bat du lurralde historiko bakoitzean.

Loturak:

- ▶ [Kontsumobideren prestakuntza zentroak](#)
- ▶ [Prestakuntza-eskaintza: Prestakuntza Kontsumobideko zentroetan](#)

2014. urtearen joanean, **1.970** prestakuntza-jarduera eman dira Kontsumobideren prestakuntza-zentroetan (tailerrak, hitzaldiak, ikastaroak...): 804 Bilbon, 835 Gasteizen eta 331 Donostian. Guztira, 165 ikastetxek hartu dute parte (103 irakaskuntza arautukoak eta 62 irakaskuntza ez-arautukoak).

Kontsumobideren prestakuntza-zentroetan antolatu diren prestakuntza-jardueretan, guztira, **24.555 lagunek hartu dute parte**.

Honako hauek izan dira tailerrak garatzeko eskaera gehien izan duten arloak: elikadura eta jasangarritasuna.

Prestakuntza-jarduerak Kontsumobideko prestakuntza zentroetan (2014)

JARDUERA MOTA

JARDUERA KOPURUA

JARDUERA MOTA	JARDUERA KOPURUA
Tailer espezifikoak	
Publizitate arloa	141
Etiketen arloa	175
Erosketa eta zerbitzuen arloa	134
Iraunkortasun arloa	225
Kontsumitzaileen eskubideen arloa	45
Segurtasun arloa	119
Teknologia berrien arloa	121
Finantza-zerbitzuen arloa	72
Elikadura arloa	337
Tailer espezifikoak guztira	1.369
Prestakuntza paketea 'ikas ezazu zure burua babesten'	12
Prestakuntza paketea 'bidaiatzea erraza da'	2
Minimaratoia	54
Udako maratoia	88
Kontsumobide Jolasean (Pazko astea eta Uda)	42
Herritartasunerako hezkuntza	83
Eskolako 21 Agenda	116
Hezkuntza-premia bereziei egokituriko tailerrak	159
Begirunez kontsumitu	16
Prestakuntza-jarduerak udalerrietan	19
Hezitzaileentzako ikastaroak	10
JARDUERAK GUZTIRA	1.970

3.2. Kontsumorako prestakuntza ikastetxeetan

Lehen Hezkuntzako ikastetxeei eta **Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen zikloari** zuzenduta dago programa hau.

Ikastetxea osatzen duten 3 kolektiboek zuzendutako jarduerak dira: **ikasleak**, **gurasoak** eta **irakasleak**.



- ▶ Lotura: [Prestakuntza-eskaintza: Kontsumorako prestakuntza ikastetxeetan](#)

Ikastetxez ikastetxeko programa horren baitan, kontsumoari buruzko **2.680 tailer** egin dira: **2.624 tailer ikasleentzat** (2.336 Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan eta 288 DBHko lehen zikloan) eta **56 gurasoentzat**.

Tailer horiek EAEko 126 ikastetxetan eman dira, eta, guztira, **54.088 ikaslek** zein haien irakaslek eta **776 gurasok hartu dute parte**.

Ikastetxeetan ikasleei emandako tailer kopurua (2014)			
gai arloen eta ikasketa mailen arabera	LEHEN HEZKUNTZA	2. HEZKUNTZA (1. ZIKLOA)	GUZTIRA
GAI ARLOAK			
Eskubideak eta betebeharrak	23	17	40
Elikadura	813	80	893
Kontsumo jasangarria	580	30	610
Aisia, jokoak eta jostailuak	270	43	313
Publizitatea	155	17	172
Segurtasuna	87	0	87
Erosketarako irizpideak eta etiketak	205	55	260
Teknologia berriak	203	46	249
GUZTIRA	2.336	288	2.624

Gurasoentzako 8 jarduera eskaini dira:

- ▶ Hitzaldi bat haien ikastetxean programaren esperientziari buruz.
- ▶ 'Elikadura ere bada hezkuntza' tailerra.
- ▶ 'Publizitatea: babesik onena heztea' tailerra.
- ▶ 'Bideojokoak, badakigu zertan jolasten dugun?' tailerra.
- ▶ 'Adingabeak eta Internet zerbitzua' tailerra.
- ▶ 'Adingabeak eta sakeleko telefonoak' tailerra.
- ▶ 'Jostailu egokia aukeratzea' tailerra.
- ▶ 'Etxeko ekonomia' tailerra.

Irakasleentzako kontsumoaren alorreko orientazio pedagogikorako zerbitzua eta ikasmaterial osagarri bidezko laguntza eskaini da, gelan lan egiteko (web quest eta dossier pedagogikoak).

Consumópolis:

Kontsumo arduratsuari buruzko eskola-lehiaketa bat da, eta Lehen Hezkuntzako 3. Zikloko eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleei zuzenduta dago. AECOSANek antolatzen du, Kontsumobiderek in eta gainerako autonomia-erkidegoekin batera.

- ▶ Lotura: [Consumópolis. Lehiaketa kontsumo arduratsuari buruz.](#)

Lehiaketaren 9. edizioan (**Consumópolis9. “Pantailen artean kontsumitzea”**). **2013-2014 ikasturtea**), EAERI dagokionez, **51 eskola-taldeak** hartu dute parte.

Fase autonomikoaren irabazleak honako hauek izan dira:

- ▶ Lehen Hezkuntzako 3. zikloa: Floreaga Ikastetxea (Azpeitia)
- ▶ Bigarren Hezkuntzako 1. zikloa: Madre de Dios Ikastetxea (Bilbo)
- ▶ Bigarren Hezkuntzako 2. zikloa: Madre de Dios Ikastetxea (Bilbo)

Madre de Dios ikastetxea (Bilbo) izan da eskola-lehiaketari dagokion estatuko **irabazlea**, **DBHko 2. zikloan**.

2014. urteko azken hiruhilekoan, lehiaketaren 10. edizioaren lehiaketaren lehen zatia gauzatu da (**Consumópolis10. Zure kontsumoak badu historia: 10 urtez, Consumópolis-en; 30 urtez, kontsumoa lantzen”**). **2014-2015 ikasturtea**).

3.3. Kontsumorako prestakuntza adinekoen zentroetan

Aurreko urteetan bezala, 2014an ere, bereziki hirugarren adinekoen zentroi zuzendutako prestakuntza-jarduerak egin dira.

- ▶ Lotura: [Kontsumorako prestakuntza adinekoen zentroetan](#)

Prestakuntza-jarduerak adinekoen zentroetan (2014)	
GAI ARLOAK	KONFERENTZIA ETA IKASGELA KOPURUA
Publizitatea	2
Erosketak eta zerbitzuak	16
Jasangarritasuna	3
Eskubideak eta betebeharrak	4
Segurtasuna	22
Finantza-zerbitzuak	6
Elikadura	9
GUZTIRA	62

EAEko hirugarren adinekoen **31 zentrotan** eta elkartetan egin da programa, eta, guztira, **3.142 lagunek hartu dute parte**.

Gehien eskatu duten gaia Segurtasunari buruzkoa izan da, jarraian, Elektrizitatearena eta Gasarena.

2014. urtean, adineko zentroentzako prestakuntza-programan parte hartu dutenek ekoizpen-zentro eta erakunde hauetan izan dira bisitan: Cafés la Brasileña, Vicrila, Nestle, El Correo, Torremadariaga, Cementos Rezola Museoa, EITB (Bilbo), Kontsumobideko Prestakuntza Zentrua, Hazi eta Cristina Enea Fundazioa.

3.4. Ikastaroak eta jardunaldiak

3.4.1. Profesionalentzako etengabeko prestakuntza

2014. urtean, kontsumoaren alorreko profesionalentzako 2 ikastaro eta 2 jardunaldi antolatu eta eman dira:

Ikastaroa: 'Kontsumitzailea babestu nahian finantza arloan'

16 orduko iraupena duen ikastaro presentziala da, AECOSAN-en laguntzarekin antolatuta. **Kontsumo alorreko 52 profesionalak** parte hartu zuten Kontsumobidek Bilbon duen prestakuntza-zentroan (2014ko maiatzak 26, ekainak 3 eta 4).

Ikastaroa: 'Kontsumo-alorreko arauak gaurkotzea'

1. Kontsumitzaileak eta erabiltzaileak defendatzeko lege orokorraren erreforma.
2. Kontsumitzaileari elikaduraz eman beharreko informazioari buruzko 1169/2011 erregelamendua.

16 orduko iraupena duen ikastaro presentziala da, AECOSAN-en laguntzarekin antolatuta. **Kontsumo alorreko 69 profesionalak** parte hartu zuten Kontsumobidek Bilbon duen prestakuntza-zentroan (2014ko urriak 8, 9 eta 13).

Informazio eta formazio jardunaldia: 'Energia elektrikoaren prezioa aukeratzeko sistema berria eta kontratazio-araubidea, kontsumitzaile txikientzat'

5 orduko iraupena duen jardunaldia. **Kontsumo alorreko 48 profesionalak** parte hartu zuten Kontsumobidek Bilbon duen prestakuntza-zentroan (2014ko maiatzak 12).

Jornada formativa e informativa: 'Jornada informativa sobre el sector eléctrico/gasista'

5 orduko iraupena duen jardunaldia. **Kontsumo alorreko 49 profesionalak** parte hartu zuten. EDP enpresak Bilbon duen egoitzan ospatu zen (2014ko azaroak 17).

4. Gatazkak konpontzea

Herriarrei zerbitzu eraginkorra eskaintzea da Kontsumobide – Kontsumoko Euskal Institutuaren lehentasuna, baita haiei beharrezko baliabide guztiak eskaintzea ere, herritarrek kontsumoaren alorrean dituzten eskubideak eta hartu behar dituzten arreta-neurriak zein diren jakin dezaten.

4.1. Kontsumoko kontsultak Euskadin

2014. urtearen joanean, **kontsumoari buruzko 39.272 kontsulta erantzun ditu guztira, Euskadin**. Haietatik, **7.635 kontsulta zuzenean Kontsumobidera bideratu dira**, eta bide hauek erabili dira kontsulta horietarako: aurrez aurre, telefonoa (bai jendearen arretarako lurralde-zerbitzuetako telefonoen bidez eta on-line).

Era berean, beste hainbat kontsumo-erakundek ere jaso dituzte kontsumitzaileen kontsultak; esaterako, Kontsumitzaileen Informaziorako Udal-bulegoek (KIUB) eta kontsumitzaileen elkarteek. Hain zuzen ere, **2014an, KIUBek 26.368 kontsultari erantzun diete**, eta **kontsumitzaileen elkarteek, 5.269 kontsultari**.

- ▶ Lotura: [Kontsumo-arloko kontsultak, nola egin...](#)



Taula honetan, erakundeek jaso dituzten kontsultei buruzko datuak ikus daitezke, sektorearen eta erakundearen arabera bereizita:

Kontsumoko kontsultak Euskadin (2014)

sektore eta erakundearen arabera

PRODUKTUA / ZERBITZUA	KONTSUMOBIDE	KIUB	KE	GUZTIRA	%
Elikadura	29	86	3	118	%0,30
Etxeko-tresna elektrikoak	588	1.237	89	1.914	%4,87
Jostailuak	6	11	1	18	%0,05
Material elektrikoa	6	24	1	31	%0,08
Altzariak	112	269	47	428	%1,09
Kosmetikoak, drogeria, lurringaiak...	9	21	2	32	%0,08
Ehunak, oinetakoak eta osagarriak	185	445	39	669	%1,70
Telefonia eta komunikazioa (produktuak)	54	145	11	210	%0,53
Ibilgailuak	210	400	29	639	%1,63
Askotariko produktuak	285	350	33	668	%1,70
Konponketa-zerbitzuak	156	429	84	669	%1,70
Hornidura-zerbitzuak (energia, ura...)	795	2.873	389	4.057	%10,33
Etxebizitza (higiezinaren sustapena)	330	1.328	1.135	2.793	%7,11
Etxebizitza (konponketak, gremioak)	112	260	82	454	%1,16
Ibilgailuen konponketa	230	693	84	1.007	%2,56
Bidaiak	140	466	87	693	%1,76
Garraioak	279	783	219	1.281	%3,26
Telekomunikazioak	2.175	8.036	884	11.095	%28,25
Banku-zerbitzuak	521	1.664	924	3.109	%7,92
Osasun eta laguntza zerbitzuak	60	228	41	329	%0,84
Tindategiak eta garbitegiak	25	91	25	141	%0,36
Aseguruak	325	1.748	406	2.479	%6,31
Gasolina eta zerbitzuguneak	9	8	0	17	%0,04
Askotariko zerbitzuak	994	4.773	654	6.421	%16,35
GUZTIRA	7.635	26.368	5.269	39.272	%100

4.2. Kontsumoko erreklamazioak Euskadin


2014an, **Euskadin, 23.498 erreklamazio izapidetu ziren** kontsumo-bulegoen bidez: **9.996 Kontsumobideren bidez, 12.360 Kontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulegoen (KIUB) bidez** eta **1.142 kontsumitzaile-elkarteen bidez**.

Kontsumo-erakundeek izapidetutako erreklamazioak aztertu ondoren, agerian geratu da sektore berberak direla erreklamatuena; horien guztien artean, **telekomunikazioen sektorea da erreklamazio gehien jaso dituen**, erreklamazioen % 39,05, hain zuzen ere. Energia-zerbitzuak bigarren tokian ageri dira (%8,90), eta atzetik, etxeko-tresna elektrikoak (%5,91) eta banku-zerbitzuak (%5,85). Hain zuzen, lau sektore horiek erreklamazio guztien erdia baino gehiago bildu dituzte (%59,72).

- ▶ Lotura: [Kontsumoko erreklamazioak nola egin](#)
- ▶ Lotura: [Kontsumo-erlako gatazkak konpontzea. Izapideak](#)

Kontsumoko erreklamazioak Euskadin (2014)

erakundeen arabera



Kontsumoko erreklamazioak Euskadin (2014)

sektore eta erakundeen arabera

PRODUKTUA / ZERBITZUA	KONTSUMOBIDE		KIUB		KE	
Elikadura	31	%0,31	39	%0,32	12	%1,05
Etxeko-tresna elektrikoak	382	%3,82	995	%8,05	1	%0,09
Jostailuak	13	%0,13	6	%0,05	0	%0
Material elektrikoak	14	%0,14	11	%0,09	12	%1,05
Altzariak	179	%1,79	182	%1,47	0	%0
Kosmetikoak, drogeria, lurringaiak...	15	%0,15	16	%0,13	6	%0,53
Ehunak, oinetakoak eta osagarriak	206	%2,06	201	%1,63	2	%0,18
Telefonia eta komunikazioa (produktuak)	699	%6,99	129	%1,04	4	%0,35
Ibilgailuak	140	%1,40	68	%0,55	10	%0,88
Askotariko produktuak	174	%1,74	119	%0,96	18	%1,58
Konponketa-zerbitzuak	113	%1,13	181	%1,46	105	%9,19
Hornidura-zerbitzuak (energia, ura...)	716	%7,16	1271	%10,28	42	%3,68
Etxebizitza (higiezinaren sustapena)	89	%0,89	152	%1,23	18	%1,58
Etxebizitza (konponketak, gremioak)	52	%0,52	78	%0,63	21	%1,84
Ibilgailuen konponketa	314	%3,14	267	%2,16	28	%2,45
Bidaiak	119	%1,19	254	%2,06	150	%13,13
Garraioak	510	%5,10	490	%3,96	0	%0
Telekomunikazioak	3.178	%31,79	5631	%45,56	368	%32,22
Banku-zerbitzuak	695	%6,95	555	%4,49	124	%10,86
Osasun eta laguntza zerbitzuak	140	%1,40	44	%0,36	6	%0,53
Tindategiak eta garbitegiak	94	%0,94	66	%0,53	2	%0,18
Aseguruak	94	%0,94	471	%3,81	81	%7,09
Gasolina eta zerbitzuguneak	56	%0,56	4	%0,03	0	%0
Askotariko zerbitzuak	1939	%19,40	1128	%9,13	132	%11,56
Beste batzuk	34	%0,34	2	%0,02	0	%0
GUZTIRA	9.996	%100	12.360	%100	1.142	%100

Kontsumoko erreklamazioak Euskadin (2014)

sektore eta lurralde historikoen arabera

PRODUKTUA / ZERBITZUA	ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA		ONLINE		GUZTIRA	
Elikadura	16	%0,36	31	%0,23	23	%0,40	0	%0	70	%0,30
Etxeko-tresna elektrikoak	308	%7,00	861	%6,51	215	%3,74	5	%3,60	1.389	%5,91
Jostailuak	12	%0,27	7	%0,05	1	%0,02	0	%0	20	%0,09
Material elektrikoak	8	%0,18	13	%0,10	4	%0,07	0	%0	25	%0,11
Altzariak	165	%3,75	130	%0,98	78	%1,36	0	%0	373	%1,59
Kosmetikoak, drogeria, lurringaiak...	13	%0,30	13	%0,10	5	%0,09	0	%0	31	%0,13
Ehunak, oinetakoak eta osagarriak	120	%2,73	194	%1,47	99	%1,72	0	%0	413	%1,76
Telefonia eta komunikazioa (produktuak)	126	%2,87	149	%1,13	550	%9,58	5	%3,60	830	%3,53
Ibilgailuak	50	%1,14	97	%0,73	64	%1,11	1	%0,72	212	%0,90
Askotariko produktuak	85	%1,93	120	%0,91	97	%1,69	1	%0,72	303	%1,29
Konponketa-zerbitzuak	45	%1,02	215	%1,63	51	%0,89	1	%0,72	312	%1,33
Hornidura-zerbitzuak (energia, ura...)	267	%6,07	1.203	%9,10	612	%10,66	10	%7,19	2.092	%8,90
Etxebizitza (higiezinaren sustapena)	74	%1,68	124	%0,94	85	%1,48	0	%0	283	%1,20
Etxebizitza (konponketak, gremioak)	20	%0,45	76	%0,57	50	%0,87	2	%1,44	148	%0,63
Ibilgailuen konponketa	119	%2,71	380	%2,87	99	%1,72	4	%2,88	602	%2,56
Bidaiak	83	%1,89	238	%1,80	79	%1,38	1	%0,72	401	%1,71
Garraioak	140	%3,18	795	%6,01	198	%3,45	17	%12,23	1.150	%4,89
Telekomunikazioak	1.815	%41,28	5.026	%38,02	2.301	%40,07	35	%25,18	9.177	%39,05
Banku-zerbitzuak	347	%7,89	668	%5,05	352	%6,13	7	%5,04	1.374	%5,85
Osasun eta laguntza zerbitzuak	28	%0,64	112	%0,85	49	%0,85	1	%0,72	190	%0,81
Tindategiak eta garbitegiak	38	%0,86	97	%0,73	27	%0,47	0	%0	162	%0,69
Aseguruak	118	%2,68	396	%3,00	130	%2,26	2	%1,44	646	%2,75
Gasolina eta zerbitzuguneak	11	%0,25	44	%0,33	5	%0,09	0	%0	60	%0,26
Askotariko zerbitzuak	378	%8,60	2.216	%16,76	562	%9,79	43	%30,94	3.199	%13,61
Beste batzuk	11	%0,25	15	%0,11	6	%0,10	4	%2,88	36	%0,15
GUZTIRA	4.397	%100	13.220	%100	5.742	%100	139	%100	23.498	%100

4.2.1. Kontsumobide

2014. urtearen joanean, Kontsumobidek **9.996 erreklamazio jaso zituen** aurrez aurre (hiru lurralde-zerbitzuen bidez: Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa) zein telematikoki. Honako hau da bulegoetan egindako erreklamazioen lurraldekako banaketa: 2.298 Arabako Kontsumobideko bulegoanizapidetu ziren, 5.289 Bizkaikoan eta 2.270 Gipuzkoakoan. On-line ere 139 erreklamazio jaso ziren.

2014an Kontsumobiden jasotako erreklamazio guztiak kontuan hartuta, hauek dira nabarmentzeko moduko datuak, besteak beste:

- ▶ **Bereziki bultzatu da Kontsumobideren bitartekotza-lana** 2014. urtean: **6.094 kasutan bideratu zen modu horretan, eta haietatik, 2.683 kasutan lortu zen adostasun-motaren bat** (erabatekoa edo partziala).
- ▶ 424 erreklamazio beste erakunde batzuetara bideratu ziren, haiek ebatz zituzaten, Kontsumobideren eskumenekoak ez ziren gaiei buruzkoak baitziren.
- ▶ **204 erreklamazio Arbitraje Batzordera bideratu ziren.**
- ▶ Kontsumobidek **484 erreklamazio zehapen-espeditzeko proposamenarekin itxi zituen**, salatutako enpresentzat. Bestalde, 628 kasutan espeditzea artxibatu egin zen, arau-hausterik gertatu ez zela egiaztatu ondoren Kontsumobidek.



kontsumoBIDE

KONTSUMOKO
EUSKAL INSTITUTUA

INSTITUTO VASCO
DE CONSUMO

Kontsumobiden aurkeztutako erreklamazioak (2014)

sektore eta lurralde historikoen arabera

PRODUKTUA / ZERBITZUA	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	ONLINE	GUZTIRA	%
Elikadura	12	9	10	0	31	%0,31
Etxeko-tresna elektrikoak	94	153	130	5	382	%3,82
Jostailuak	11	2		0	13	%0,13
Material elektrikoak	6	6	2	0	14	%0,14
Altzariak	93	35	51	0	179	%1,79
Kosmetikoak, drogeria, lurringaiak...	7	4	4	0	15	%0,15
Ehunak, oinetakoak eta osagarriak	56	78	72	0	206	%2,06
Telefonia eta komunikazioa (produktuak)	97	90	507	5	699	%6,99
Ibilgailuak	34	49	56	1	140	%1,40
Askotariko produktuak	58	46	69	1	174	%1,74
Konponketa-zerbitzuak	9	99	4	1	113	%1,13
Hornidura-zerbitzuak (energia, ura...)	138	351	217	10	716	%7,16
Etxebizitza (higiezinaren sustapena)	16	51	22	0	89	%0,89
Etxebizitza (konponketak, gremioak)	5	30	15	2	52	%0,52
Ibilgailuen konponketa	52	207	51	4	314	%3,14
Bidaiak	26	70	22	1	119	%1,19
Garraioak	44	354	95	17	510	%5,10
Telekomunikazioak						
Alderdi orokorrak	85	209	8	4	306	%3,06
Telefonia finkoa	142	98	40	4	284	%2,84
Telefonia mugikorra	668	1.166	309	25	2.168	%21,69
Internet	243	123	52	2	420	%4,20
Banku-zerbitzuak	157	342	189	7	695	%6,95
Osasun eta laguntza zerbitzuak	13	91	35	1	140	%1,40
Tindategiak eta garbitegiak	22	57	15	0	94	%0,94
Aseguruak	5	69	18	2	94	%0,94
Gasolina eta zerbitzuguneak	11	40	5	0	56	%0,56
Askotariko zerbitzuak	184	1.446	266	43	1.939	%19,40
Beste batzuk	10	14	6	4	34	%0,34
GUZTIRA	2.298	5.289	2.270	139	9.996	%100

Bitartekaritzarekin ebatzitako erreklamazioak (2014)

erabaki mota eta lurralde historikoen arabera

ERABAKIA	ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA		ONLINE		GUZTIRA	
Artxibatu adostasunagatik	690	%45,48	1146	%38,73	540	%35,02	2	%2,63	2.378	%39,02
Artxibatu adostasun partzialagatik	143	%9,43	89	%3,01	73	%4,73	0	%0	305	%5,00
Artxibatu ohartarazpenarekin	7	%0,46	18	%0,61	7	%0,45	38	%50,00	70	%1,15
Artxibatu arbitraje proposamenduarekin	31	%2,04	128	%4,33	42	%2,72	3	%3,95	204	%3,35
Artxibatu zehapen-espediente proposamenarekin	110	%7,25	192	%6,49	176	%11,41	6	%7,89	484	%7,94
Artxibatu desadostasunagatik	526	%34,67	993	%33,56	453	%29,38	26	%34,21	1.998	%32,79
Artxibatu desadostasunagatik eta bidaltzea	0	%0	1	%0,03	26	%1,69	0	%0	27	%0,44
